



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats
(Nafarroa)

PRENTSA OHARRA

Udabe-Beramendi, Igoa eta Orokieta-Erbitiko herrietan fibra optikoa egikaritzeko proiektua, 2013-2020 Landa Garapeneko Programaren, eta Nafar Gobernuko Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamenduko fondoekin diruzlagunduta dagoena, 2019ko uztailaren 29ko ezohiko batzarrean esleitu zen, Sisnet Nuevas Tecnologías enpresaren alde, 48.650,01 eurotan BEZ kanpo eta obraren berme epea guztira 8 urtekoa izanik.

Plan honen HELBURUA enpresen eta, oro har, bizilagunen irisgarritasuna hobetzea da.

Sarearen bitartez irisgarritasuna gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik hobetzen lagunduko duten ekintzak sustatzea du helburu: osasun etxea, hezkuntza zentruak, industria gunea, komertzioa, turismoa. Bertako bizilagunak telelana-ren bidez beraien aukerak sustatu eta garatzeko behar dituzten azpiegiturekin hornitzea.

Erabileraren bitartez kalitatezko komunikazio azpiegituraz hornitzea; lanerako, tramiteak egiteko edo oro har komunikazio beharregatik egiten diren desplazamenduak gutxitu edo ekiditea. Modu honetan energiaren erabilera arduratsu eta jasangarrian eragiten da, aldaketa klimatikoari aurre eginez.

Udal administrazio telematiko egokiaren garapena ahalbidetzea.

Bailarako herritarren arteko barne komunikazioa (intranet) posible egingo duen beharrezko azpiegituraz hornitzea.

59 urtetik gorako bizilagunen ehuneko altua kontuan izanik, helduen etxe-uztea ekidindo duen tele-asistentzia ahalbidetzea, bai eta osasun etxera desplazatzeko beharra gutxitzea.

Behin betiko esleipena burututa, ejekuzio epea hiru hilabetekoa izanen da.

Basaburuan, 2019ko Abuztuaren 6an.



FONDO EUROPEO AGRICOLA DE DESARROLLO RURAL.
EUROPA INVIERTE EN LA S ZONAS RURALES



LEADER

